

VELENJEKO BERRIAK

Velenje Europako hiri gaztea da, arkitektura moderno baten eta kulturarteko irekitasun baten jabe dena. XIII. mendekoak dira hiriari buruzko lehen aipamenak, merkatu-hiri gisakoak, nahiz eta Bigarren Mundu Gerra eta gero hasi zen garatzen; hala, 1959ko irailaren 20an ireki zen hirigune berria. Gaur egun udal-barrutia ere bada Velenje, eta 25 kokaleku dauzka, 33.000 biztanle ingururekin. Biztanle horien artean, 25.000 inguru hirigunean bizi dira. Esloveniako gune ekonomiko garrantzitsuenetako bat da, eta Savinja-Šalek eskualdeko enplegu-, administrazio- eta hezkuntza-gune nagusia. Ikatz-meatzeak, energia-sektorea, metalgintza eta zerbitzu espezializatuak dira Velenjeko ekonomia-garapenaren oinarri, berriki garatutako turismoarekin batera. Hiriko azpiegituren egoera onaren eta hiritarren izaera abegikorren ondorioz, nazioko eta nazioarteko hainbat sari irabazi ditu hiriak. Erraza da hiriko natura-guneetara (Tito plaza, 390 metroko altuera) eta inguruneetara sartzea: parkeak, basoak eta lakuak gertu gelditzen dira oinezkoentzako, bizikletentzako eta mendizaleentzako bideetan. Hiriaren bihotzaren taupadaren parte egiten dute kirol-instalazio modernoek, kultura-erakundeek, museoek, hezkuntza-instituzioek eta elkarte, klub eta norbanako sortzaileek. Velenje ezaguna da kirolari, aisialdiari, turismoari eta kulturari lotutako ekitaldiengatik. Musikaren, dantzaren eta poesiaren hiria da, eta bai loratzen diren ideiena ere. Askok dira hiriaren historia idatziko duten izen ezagunak; ekonomialari, zientzialari, artista, kirolari, politikari eta abarreko izen ospetsu askok Velenjen dute jatorria. Kultura-monumentuz betetako hiria da Velenje, natura-gune interesgarriak dituena, baina, batez ere, beso zabalik hartuko zaituzten ekitaldi eta jendez gorpuztua. – *Ongi etorri Velenjera, lagun zahar eta berriok!*